Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Pedro Lecea Iparragirre

Berastegi, Gipuzkoa (1929)



Aurkibidea

Biografia



Izotzalde auzoko Intza baserrian jaio zen 1929an eta bertan bizi izan da beti. Maria Huizi (Goizueta, 1933) emaztearekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Zintak

BRS-011

- **Proiektua**: Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Data**: 2009-06-16
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k)**: Diaz, Josu

Pasarteak

1. Aurkezpena

- **Erref**: BRS-011/001
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Noiz eta non jaio ziren azaltzen dute. Pedrok txikitatik egin izan du lan baserrian, bestelako lan txikiren bat kenduta. Lehen ganadu asko edukitzen zuten.

Transkripzioa
- Bueno pixkat hasieran jasotzeko bakarrik: zuk, Pedro, esan duzu…
- Pedro bai, Pedro.
- Larogei urte…
- Larogei, abendun.
- Aurten, ezta? Abendun.
- Bai, aurten bai
- Abendun ze egunetan?

- “Ocho de diciembre”
- [MARIA] Hillen zortzien Ama Birjiña egunen
- Ama Birjiña egunean?
- Bai.
- Orduan bale, eta zuk esan duzu hirurogeita hamasei?
- Nik hirurogeita hamasei hamabosten, abendun hamabosten, “quince de diciembre”, osea hil bateko gera bik, […] lau urten diferentzia, baiño hil baten jaiok.
- Antzeko ordun.
- Bai.
- Eta zein da hemengoa bertakoa?
- [PEDRO] Ni, ni naiz hemen bertakoa, bai, hemen jaio eta hemen hazitakoa.
- Intze?
- Intza bai Intza baserri, Intza baserri, bai.
- Hemen jaiotakoa zara, orduan?
- Bai, bai, bai.
- Eta mutikotatik baserrian lan egin behar…
- [PEDRO] Erabat baserriko lana guk, ez gara iñun kanpoan aritu […] Bueno obratan ta teillatutan ta bai, baiño gaiñerakuan fabriketan ta iñongo industrin ez. Etxen baserrin ganau asko izaten gendun lehen ta, ardi ta, azienda asko.
- Ze auzo da hau?
- Izotzalde.
- A, hau da Izotzalde.
- Izotzalde, bai, izena du.
- Eta orduan ganadu asko eukitzen zenduen.
- Bai, lehen bai, lehen etxen zortzi behi ta’re eukitzen giñun, esnea ateratzen giñun lehen, ta txekorrak eta danak, ta txerri-saille ere bai, ta hola, baserriko gauzak holaxen izaten zien, bai, bai. Kanpoa joan ez gera, etxen saiatu behar ta etxen, etxeko lanetan. Oain ez, oain ya aspalditxo jubilatuta gare, ta oain ez dago. Bi behi badauzkagu baiño, been txekorrak hortxe daude kanpoan, baiño gaiñerakoan ez dago aziendik ezer. Oilok […]

2. Soldadutzako bizimodua

- **Erref**: BRS-011/003
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:02:39. **Bukatu**: 00:04:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Pedrok urte eta erdi pasa zuen Tetuanen soldadutzan. Sukaldean egiten zuen lan, eta jatekoa nahikoa izaten zuten. Hara egindako joan-etorriak azaltzen ditu.

Transkripzioa
- Zu Afrikan egon ziñan, orduan?
- Afrikan egondu naiz, bai, urte ta erdi han pasa nittun Afrikan, moro tarten, moroan tarten hantxe.
- Nun egon ziñan?
- Tetuan.

- Tetuanen e!
- Bai, bai. Ordun bazeuken Espaiñik, geo utzi zun, baiño ordun bazegoen Espaiñi bazegoen ordun, gu giñen zinkuentaiunon joan ta dosen etorri, bai.
- Ta ze moduzko bizimodua han Afrikan?
- Han? Hantxe, berotzen zun puxka bat, baiño lan puxka bat ein behar nik izaten nun, arrantxeriko lana hartu eman ziguen guri ta arrantxerin aitzen giñan, kozina edo arrantxua prepaatzen soldadu, bai. Ta hoixe, lan hoixe. Urtebete pasa hartantxen in gendun, […] baiño tripea ondo betetzen gendun ta segi, aguanta.
- Bai? Jatekua ta nahikua?
- Bai, bai, jateko izaten gendun ta ondo izaten giñen. Geo ez giñen behin'e permisoakin ta're ez giñen etorri behin'e, ya lizentziatua bezela etorri giñen, berriz atzera eramazi giñuen e. Etorri ya lizentziatuta bezela etorri, baiño atzera berriz eramazi in giñuen, ta hillabete hantxe egin gendun ezer egin gabe hantxe. Ta buelta atzea, hemezortzi hillebete egin ta etxea. Ta hola.
- Han egon bakarrik, ez? Zeregiñik ezer ez…
- Ez, ezer ez, ezer ez, azkeneko hillabeten ezta ezer'e, ez serbiziorik eta ez kozinana beandu; "joan" esaten ziguen, baiño ez giñen joaten. Ez, ez, hantxe paseatu ta egon, ta denboa ezin pasa, hue luzea zan denboa ezin pasa, hue luzea, denboa asko, […] denboa luzea, bai.

3. Baserriko lanak

- **Erref**: BRS-011/006
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:06:54. **Bukatu**: 00:09:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:
Lehen lur asko zituzten, eta soroan lan asko egin behar izaten zuten. Garia ere egiten zuten, eta lan gogorra izaten zen. Laiarekin taldean nola egiten zuten lan azaltzen du. Garia lan zikina eta astuna dela esaten dute.

Transkripzioa
- Hola zan, bai, gure bizimodue.
- Eta hemen Intzan soroak eta asko izango zien, ezta?
- Bai, bai, bai, dena soro. Oain etxek eta haiek dauzke semek, eta gero hor etxe haieta alabak, berriz, ta hok dena soro ta terreno asko gendun, bai; terreno asko gendun, bai.
- [MARIA] Bai, bai. Hemen'e lan asko iñak gea hemen'e, bateko belarra dala ta besteko garua dala…
- [PEDRO] Soro-lana. Ordun lan asko egitten zan, lan asko egitten zan. Garie ere etxen egitten zan ordun, garondoetan ta, hura eitteko lana gogorra izaten zan, laiez, ta jiran lurre jira beharra, ta holaxe, dana holaxeko lana izaten zan lehen ta. Holaxe ohittu gea, lanen ikasik gea gu, bai, ikasi gendun. Oain, oain… ez gea gauze ez gea, baiño, hementxe.
- Zuek ere laietan itten zenduen orduan?
- Bai, bai, bai, bai… Saio earrak iñak gea, bai. Asko, asko.
- Nola izaten zan laietan, nola itten zan laietan?
- Ez dezu ikusi, ez dezu ikusi, hemen hor fotografiak'e bazien hor ez dakit

nunbait. Herrin izango die ta [...] bai. Gu giñen kuadrilla, sei-zazpi lagun jartzen gea herrenkan, jarri holaxe, ta laiek, oain'e badauzkat hor jasoak izaten dittut, sartu denak batera, ta lurre dena batea in, sartu laiek, eta denak batera jirau, hoixe atzeraka- atzeraka- atzeraka joaten zan. Hoixe. Galdu zan hura ere, ta nik oain'e hortxe dauzket, laiek hor dauzket nik oain'e. Arittu're itten naiz, baatzan ta oaindiken'e zeozer pixkat aitzen naiz.
- Bai?
- Jiratzen det. Bai, bai. Hemen gure etxe [...]ez die aritzen, baiño ni aritzen naiz. Bai, ikasi gendun hortantxe. Ta ordun ez zan lan txarra're, lan ona zan ordun, oso errexa zan hura. Oain ez baiño... Ta gari asko eitten zan.
- Bai? Gari asko hartzen zenduen?
- Bai, gari asko eitten zan.
- Gariak lan asko izango zun, ez?
- Bai, lan txarra dena.
- [MARIA] Zikiñe, zikiñe, hautse ta zikiñe asko du hori. Barrura sartu ta gero jotzeko, ale hura apartatzeko, ta dena harlosa jarri, ta harri jarri, ta harei joka, ta oooo.
- [PEDRO] Lan zikiña da, bai.
- [MARIA] Lan zikiñe, lan astuna ta zikiñe.

4. Ardiak eta haiek zaintzen

- **Erref**: BRS-011/008
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:10:15. **Bukatu**: 00:11:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Ardi asko eta behorrak izaten zituzten gaztetan. Gerora pinuak jarri zituzten, eta ez dago halakorik. Pedroren aita ibiltzen zen artzain gehienbat. Haren artzain-bizimodua nolakoa zen kontatzen du. Etxean morroiak izaten zituzten. Ardi-gazta egiten zuen aitak, baina ez zuen jaten.

Transkripzioa
- Ta hemen ere eukitzen zenduen ardiak eta?
- Bai, bai, gure gazte denboran ardi asko, asko izaten zan. Gero piñuk jarri zien ta kendu behar izandu zien; behorrak ere bai, ta ardi asko, ta oain ez dao... ta aspaldin kendu giñun denak. Oain ezer ez, hoietakorik ezer ez.
- Ta zein ibiltzen zan artzain?
- [MARIA] Honen aitta're bai asko.
- Nere aittek gu baiño haure gehiego hue. Gu're bai, ni geo asko, gehiena ni ibilitzen nintzen, baiño gure aita zana gu baiño gehio. Gu erabat artzai ibiltzen zen. Geo mendin han aparte Goizutaldea aparte zan hemen mendik eta... han izaten zien ardik, ta han bordak eta txabolak eta bertan eukitzen zitun, ta txabolan bertan lo einda ta hola ibiltzen zan hue. Hue etxeko baserriko lana baiño gehio aziendatako martxa ibiltzen zun aittek, bai. Gero etxen morroiak'e, gu ttikik giñala morroiak, hemen itteko lana morroiak izaten zien, ta bai. Hoik ezautuk gea, bai.
- Eta orduan aita ardiekin joan ta txabolan hantxe egoten zan.
- Bai, bai, bai, asko, zortzi egun igual, ta holaxe.

- [MARIA] Gazta earrak beak egitten zittun e? Gazta, ardi-gaztak, eta beak ez zun probatu’re egitten gaztaikan.
- [PEDRO] Ez, gazta ez zun jaten harek...
- [MARIA] Ez zun jaten.
- [ELKARRIZKETATZAILEA] Egin bakarrik berak.
- [PEDRO] Ein bai, ta gazta ona.
- [MARIA] Egin bakarrik. Jan ez, jan ez zun bate itten.

5. Eskola txikitan

- **Erref**: BRS-011/010
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:16:43. **Bukatu**: 00:19:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Berastegiko eskolan ibili zen Pedro. 7 urterekin hasi zen joaten, eta berehala hasi zen gerra. Gerra-denboran izaten zuten eskola, baina irakasleak etengabe aldatzen ziren. Ez zuten ezer ikasten. Erdaraz ez zekiten, eta irakasleek erdaraz hitz egiten zutenez, ez zieten ulertzen. Mutilek eta neskek aparte ikasten zuten. Ikastolako ordutegia azaltzen du. Hala ere, eskolara gutxi joaten ziren, etxean lana zegoelako beti.

6. Txikitako jolasak

- **Erref**: BRS-011/011
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:19:06. **Bukatu**: 00:20:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Jolasteko denbora izaten zuten. Pilotan aritzen ziren, tornikean, kaniketan, gordeketan... Tornikera nola jolasten zuten azaltzen du. Izandako pilotak gogoratzen ditu.

7. Dotrina

- **Erref**: BRS-011/014
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:22:41. **Bukatu**: 00:24:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Dotrina buruz ikasi zuten. Orduko apaiz batekin nola ikasi zuten azaltzen du Pedrok. Bai eskolan, bai handik kanpo ikasten zuten. Orduan dotrina oso garrantzitsua zen. Gaur egungo egoerarekin alderatzen dute ordukoa.

8. Elizaren pisua gizartean

- **Erref**: BRS-011/015
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:24:21. **Bukatu**: 00:26:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Eliza inportantea zen orduan. Sarritan joan behar izaten zuten elizara. Kongregazioez hitz egiten dute. Elizak esandakoa ez betetzeagatik, zer zigor izaten zituzten kontatzen dute.

9. Elizak agindutako janzkerak

- **Erref**: BRS-011/016
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:26:30. **Bukatu**: 00:28:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:
Elizara joateko eta lutoa zenean nola jantzi behar izaten zuten azaltzen dute. Lutoa zenean, askotan arropa tindatu egin behar izaten zen. Urte t'erdi bi urtean eramaten zuten lutoa

10. Eskola eta gero, lanean

- **Erref**: BRS-011/017
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:28:17. **Bukatu**: 00:29:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:
Eskolan 14 urtera arte egon ziren. Eta horren ondoren, baserriko lanak egiten zituzten. Etxetik kanpo, teilatuak konpontzen ibili zen Pedro. Paretak egiteko harriak jartzen ere ibili zen. Lan pisuak egiten. Baserriko lana ere astuna dela diote.

11. Argia eta ura

- **Erref**: BRS-011/018
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:29:46. **Bukatu**: 00:32:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Lehen ez zuten urik etxean, eta argia berandu jarri zuten. Nola moldatzen ziren ura etxera ekartzeko eta arropak garbitzeko kontatzen dute. Xaboia izaten zuten, baina lixi-ura izaten zuten, arropa zuria egosi eta garbitzeko. Xaboi-hautsak botatzen zitzaizkion, eta gero kanpoan zabaltzen zuten arropa.

12. Etxeko garbitasuna

- **Erref**: BRS-011/019
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:32:18. **Bukatu**: 00:33:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Dena eskuz egin behar izaten zuten, eta lana gogorragoa zen. Etxeko garbitasuna nola egiten zuten azaltzen dute.

13. Kantuak belaunaldiz belaunaldi

- **Erref**: BRS-011/023
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:44:39. **Bukatu**: 00:45:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
20 urte zituenerako ikasi zituen kantu horiek. Bere aitak entzunda ikasiko zituen kantuak. Goizuetan bertsotarako zaletasun handia zegoen. Lehen entzunda ikasten zen, ez baitzekiten irakurtzen eta idazten.

14. Udaletxean lanean

- **Erref**: BRS-011/025
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:47:12. **Bukatu**: 00:49:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:
Pedro udaletxean aritu zen lanean, 40 urte zituela. 7 urte eman zituen han lanean. Garai hartan nolako bizimodua eta zer eginkizun izaten zituen azaltzen du.

15. Nola aldatu den herria

- **Erref**: BRS-011/027
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:49:49. **Bukatu**: 00:50:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
Herria asko aldatu dela dio. Kanpoko jende asko etorri da. Baina industriarik ez dagoenez, hori da arazoa. Fabrika bat jartzekotan egon ziren, baina ez zieten utzi.

16. Berastegiko auzoak

- **Erref**: BRS-011/028
- **Iraupena**: 0:00:33. **Hasi**: 00:50:43. **Bukatu**: 00:51:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Berastegin zer auzo dauden azaltzen du: lau bailara dira, eta etxe guztiak bistan daude.

17. Errekan jolasean

- **Erref**: BRS-011/030
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:51:39. **Bukatu**: 00:52:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:
Txikitan errekara joaten ziren amuarrainak harrapatzera eskuz. Errekan hartzen zuten bainua. Uretan ibiltzen ziren jolasean.

18. Nola ezagutu zuten elkar

- **Erref**: BRS-011/032
- **Iraupena**: 0:00:36. **Hasi**: 00:53:20. **Bukatu**: 00:53:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Hernanin ezagutu ziren, Maria han neskame zegoela. Pedrok aitzakiaren bat izaten zuen Hernanira joateko, eta hala ezagutu zuen Maria.

19. Dotrinaren garrantzia

- **Erref**: BRS-011/034
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:22:41. **Bukatu**: 00:24:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Dotrina buruz ikasi zuten. Orduko apaiz batekin nola ikasi zuten azaltzen du Pedrok. Bai eskolan, bai handik kanpo ikasten zuten. Orduan dotrina oso garrantzitsua zen. Gaur egungo egoerarekin alderatzen dute ordukoa.

20. Elizaren pisua gizartean

- **Erref**: BRS-011/035
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:24:21. **Bukatu**: 00:26:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Eliza inportantea zen orduan. Sarritan joan behar izaten zuten elizara. Kongregazioez hitz egiten dute. Elizak esandakoa ez betetzeagatik, zer zigor izaten zituzten kontatzen dute.

21. Elizak agindutako janzkerak

- **Erref**: BRS-011/036
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:26:30. **Bukatu**: 00:28:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:
Elizara joateko eta lutoa zenean nola jantzi behar izaten zuten azaltzen dute. Lutoa zenean, askotan arropa tintatu egin behar izaten zen. Urte t'erdi bi urtean eramaten zuten lutoa

22. Eskola eta gero, lanean

- **Erref**: BRS-011/037
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:28:17. **Bukatu**: 00:29:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:
Eskolan 14 urtera arte egon ziren. Eta horren ondoren, baserriko lanak egiten zituzten. Etxetik kanpo, teilatuak konpontzen ibili zen Pedro. Paretak egiteko harriak jartzen ere ibili zen. Lan pisuak egiten. Baserriko lana ere astuna dela diote.

23. Argia eta ura

- **Erref**: BRS-011/038
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:29:46. **Bukatu**: 00:32:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Lehen ez zuten urik etxean, eta argia berandu jarri zuten. Nola moldatzen ziren ura etxera ekartzeko eta arropak garbitzeko kontatzen dute. Xaboia izaten zuten, baina lixi-ura izaten zuten, arropa zuria egosi eta garbitzeko. Xaboi-hautsak botatzen zitzaizkion, eta gero kanpoan zabaltzen zuten arropa.

24. Etxeko garbitasuna

- **Erref**: BRS-011/039
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:32:18. **Bukatu**: 00:33:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Dena eskuz egin behar izaten zuten, eta lana gogorragoa zen. Etxeko garbitasuna nola egiten zuten azaltzen dute.

25. Kantuak belaunaldiz belaunaldi

- **Erref**: BRS-011/043
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:44:39. **Bukatu**: 00:45:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
20 urte zituenerako ikasi zituen kantu horiek. Bere aitak entzunda ikasiko zituen kantuak. Goizuetan bertsotarako zaletasun handia zegoen. Lehen entzunda ikasten zen, ez baitzekiten irakurtzen eta idazten.

26. Udaletxean lanean

- **Erref**: BRS-011/045
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:47:12. **Bukatu**: 00:49:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:
Pedro udaletxean aritu zen lanean, 40 urte zituela. 7 urte eman zituen han lanean. Garai hartan nolako bizimodua eta zer eginkizun izaten zituen azaltzen du.

27. Nola aldatu den herria

- **Erref**: BRS-011/047
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:49:49. **Bukatu**: 00:50:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
Herria asko aldatu dela dio. Kanpoko jende asko etorri da. Baina industriarik ez dagoenez, hori da arazoa. Fabrika bat jartzekotan egon ziren, baina ez zieten utzi.

28. Berastegiko auzoak

- **Erref**: BRS-011/048
- **Iraupena**: 0:00:33. **Hasi**: 00:50:43. **Bukatu**: 00:51:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Berastegin zer auzo dauden azaltzen du: lau bailara dira, eta etxe guztiak bistan daude.

29. Errekan jolasean

- **Erref**: BRS-011/050
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:51:39. **Bukatu**: 00:52:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:
Txikitan errekara joaten ziren amuarrainak harrapatzera eskuz. Errekan hartzen zuten bainua. Uretan ibiltzen ziren jolasean.

30. Nola ezagutu zuten elkar

- **Erref**: BRS-011/052
- **Iraupena**: 0:00:36. **Hasi**: 00:53:20. **Bukatu**: 00:53:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Hernanin ezagutu ziren, Maria han neskame zegoela. Pedrok aitzakiaren bat izaten zuen Hernanira joateko, eta hala ezagutu zuen Maria.

31. Euskararen ñabardurak

- **Erref**: BRS-011/055
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:55:33. **Bukatu**: 00:58:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Hernanin neskame egon zenean, etxekoek beti erdaraz egiten zuten, nahiz eta euskaldunak ziren. Goizuetako azentua nabari zaio Mariari, baina erraz ulertzen zaio. Tolosa aldera hizkera garbia eta polita dela esaten dute. Berastegiko hizkera hizkera nafarrarekin nahastu egiten du jendeak. Ez dago alderik hizkeran herriaren barruan. Ondo bereizten dira Gipuzkoako hainbat hizkeran. Gertuko herrien arteko hizkerak desberdinak diren adibide ugari ematen ditu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-04

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com